EGIN
26 ABRIL 1994



▸ DURANGALDEA

## La oposición celebra esta tarde una asamblea en Durango

A.L.

Son prácticamente dos meses los que han transcurrido desde que la Mancomunidad de Durangaldea eligiera a su nuevo presidente. En el transcurso de este tiempo, según el parecer de la oposición, han sido muy escasas las actuaciones realizadas por parte del partido en el gobierno para desbloquear las crítica situación del citado organismo comarcal.

Por este motivo, para esta tarde ha organizado una asamblea en la cual dará cuenta del estado de las cosas en el órgano de gestión comarcal. Será a partir de las siete y media en el local de tercera edad de Durango.

Los convocantes de las citada reunión -HB, PSE-EE, EA e independientes- pretenden aglutinar en torno a la misma a los representantes municipales de la oposición de toda la zona, al objeto de dar a conocer su percepción sobre esta cada vez más difícil coyuntura presidida por la bancarrota y la inoperancia para salir del cada vez más hondo agujero.

Del mismo modo, en la asamblea prevista para hoy, habrá también un espacio dedicado a lo que los propios partidos opositores estiman necesario para la Mancomunidad, informando así de sus objetivos de cara a los próximos meses. La totalidad de las fuerzas representadas en la Junta permanente,y apartadas del gobierno, han conseguido hacerun frente común ante lo que consideran gestión desastrosa por parte del PNV.

### Nuevo concejal en Durango

En otro orden de cosas, Herri Batasuna de Durango ha decidido ya quien sustituirá al recientemente fallecido concejal Javier Zurikarai.

Se trata de Ibon Alberdi Uranga, militante de la citada formación que en los últimos años ha tomado parte activa en el Comité Municipalista. De cualquier modo, Alberdi tan solo se hará cargo por el momento de la vacante en el Ayuntamiento de Durango. Tal y como han señalado dirigentes abertzales, en el curso de los próximos días se estudiará quien se ocupará del resto de responsabilidades, tales como la de la Mancomunidad.

▸ MARKINA-XEMEIN



Bolibarren museoaren ikuspegia. EGIN

# Amerikar ordezkaritzak omenaldi bat opatu zion Bolibarri arbasoen herrian

■ Salvador Arriola SELAko partaidea eta mexikar diplomatikoak izan zen bertan. ■ Lore eskaintza burutu zen «Askatzailea»ren eskulturaren aurrean.

SELA erakunde amerikarreko ordezkariak Bolibarren izan ziren atzo herri bien arteko anaikidetasun ekitaldi batetan. Amerikarrek erakundea osatzen duten hogeitazazpi estatuen banderak eman zizkioten Simon Bolibar museoari, era honetan omenaldi txiki bat eskaini ziotelarik «Askatzailea» bezala ezagutzen denari.

Lore BENGOETXEA

Atzo goizez izandako ekitaldian Salvador Arriola Basterretxea «Sistema Económico Latinoamericano» delako erakundeko idazkari nagsusia izan zen. Mexikoko enbaxadorea Caracasen, arbaso markinarrak ditu Arriolak. SELA erakundea Simon Bolibarrek gauzatu nahi zuen proiektu politiko bezala definitu zuen berak.

Bolibarren eskulturaren aurrean lore eskeintza bat egin ondoren, SELA osatzen duten Hegoamerikako eta Caribeko hogeitazazpi herrietako banderak eman zizkieten museoari. Guzti honekin amerikarren eta markinarren arteko harremanak mantendu eta sendotzeko itxaropena agertu zuten alde biek.

Aurretik ere izana da Arriola Bolibar museoan. Honela, 1.985ean Cova Padron familiaren ondare batzuk eskaini zituen; hala nola, Bolibarren bi erretratu, bere laguntzaile zuen Diego Ibarraren zurezko kofre bat, «Askatzailea»ren omenez Edgar Allan Poek egindako poema, eta Karakaseko grabatu bat.

### Arbaso euskaldunak

Simon Bolibarrek arbaso euskaldunak aurkitzeko sei belaunaldi atzera egin behar da. Bere bostgarren aitona, izen berekoa, markinarra zen eta 1.557tik 1.560ra bitartean Amerikara abiatu zen. «Askatzailea» bere aldetik 1.783ko uztailaren 24ean jaio zen Karakaseko famili kreolar haundiki batetan. Hamabost urte zituela, Araguako gudarostean sartu zen, kadete-tenienteorde legez.

1.803an Europara joan zen bigarren aldiz. Esperientzia politiko berriak izan zituen eta politika arduren jabe ere egin zen. Austria, Inglaterra, Italia eta Portugaletik ibili ondoren, Kara-Kasera bueltatu zen 1.807an. Handik lau urtera Venezuelako Legebiltzarrak independiente agertzen du lurraldea. Lehendabiziko iskanbila militarrak hasi ondoren, Cartagena de Indiasera ihes egin beharrean izan zen. 1.819an Kolonbiako independentzia lortu zuen, eta Venezuelakoa 1.821ean. Lau urte beranduago Bolibiaren burujabetasuna aldarrikatu zen Sucre eta Bolibarri esker.

▸ GERNIKA-LUMO

## Bonbaketaren urteurren ospakizunak

EGIN

Gernika Batzordeak pasa den igandean Foruen Plazan prestaturiko ekintzaren ostean -bertan Euskal Herri osotik etorritako zazpi pintore «Guernica»ren bersio baten eginkizuean aritu ziren-, aktibitate gehiago iragarri ditu gaur arratsalderako, alemaniarrek herria bonbaketatu zutela 57. urteurrena betetzen den honetan.

Honelaxe, arratsaldeko zazpi t'erdietan mahai inguru bat ospatuko da Kultur Etxean, bertako ardatz nagusia pakeari buruzko eztabaida izango delarik. Honen ondotik berriz, manifestaldi bat burutuko da iluntzeko bederatziak aldera.

Batzorde honen iniziatibaz ez ezik, gaur bertan ere, ohiturari jarraikiz, Udalak ospakizun honi dagozkion ekitaldi ofizialak burutuko ditu. Eguerdiko ordubatetarako iragarri da lore eskaintza, arratsaldean beste konbokatoria bat egin delarik Zalloko hilerrian. Ondoren, meza nagusia izango da Santa Maria eleizan.

▸ BUSTURIA

## Jai aurrekontuen beherapena

EGIN

Busturiako Udalak urte honi begira jaien aurrekontuak aprobatzea erabaki du. Guztira bi milioi eta erdi ingurukoa izango da 1.994 honetan herri zein auzo mailako festentzako izango den dirua, iaz baino ehuneko bosta gutxiago hain zuzen ere.

Udal agintariek jakinerazi dutenez, neurri berean egin dute beherantz Bizkaiko Foru Aldunditik iragarritako Udalkutxa mailako subentzioak. Honela bada, gastua gutxitu nahiean, bide honetatik aurre egiteko bere asmoa agertu du, HBren eritziaren kontra, talde honen ustetan jaiek Diputazioaren gestio ekonomiko txar baten ondorioak ordainduko bait dituzte.

Aprobatutako diru banaketaren arauera, Santiago eta Santa Ana eta San Kristobal jaietarako ia milioi bat pezeta izango dira, eta gainontzekoetan -Paresi, San Bartolome, San Blas eta Ihauteriak, Itsasoko Ama, eta San Migel- 350.000 pezetatako laguntza bana.




SOS RACISMO ARRAZAKERIA

DONOSTIA: Santa Catalina, 3 - bajo
IRUÑEA: Estafeta 72-2izd.
GASTEIZ: Francia 11- 2izd
BILBO: Zumárraga 3 bajo

¡échanos una mano!

HOTEL-RESTAURANTE
BOLIÑA

Barrenkale, 3 Telf. 94-625 03 00
Fax: 94-625 03 00
48300 GERNIKA (BIZKAIA)

BOMBONERIA PASTELERIA Bidaguren
GERNIKA
ORI - BALTZAK
ESPECIALIDAD ®